

74R

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

282n. zenbakia
martia 2003



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**ASIS'KO KLARA DEUNA
(1193-1993)**

ABIZENAK

ETXARRI: Naparroa osoan Etxarri-Aranazetik urtenda. Logroñon be badago. Gipuzkoan be zabal. (1698)
“Etxaberri”ren laburpena da eta katalanen edo galiziarren “Casanova”gaz batera doa.

ETXEGARAI: Gipuzkoa'n eta Naparroa'n zabal dabil eta Bizkaian be ugari, bear ba'da artzaiñak Gipuzkoa'tik ekarrita. Etxea baiño gorago dagon lurraldea litzake. (Donosti-1641)

ETXEGUREN: Aiala-aldean sortua eta andik zabaldu da. (1523)
“-guren” gorengoa esan nai dau: Eguen Guren, Landaguren... Orrelan ba, “etxe guztien artean gorengoa” esan gura dau.

ETXENAGUSIA: Gipuzkoar askok daroe abizen au eta Bizkaia'n Meñakan izan da 1770n. urtean. “Etxerik aundiena” esan gura dau.

ETXEZARRAGA: Igorren agertua da eta gero Bilbao'ra be zabaldua.
“Etxe zarra dagon lekua” esan nai dau. (Bilbao-1741)

EGAÑA: Aizarnan dagoz izen au daroen etxe bi, Garaikoa ta Azpikoa. (Aizarna-1646).
Jatorriko itza “Egigaiña” da eta aldapa baten gainean dagoana esan nai dau.

EGIA: Abizen oso zabaldua da: Bizkaia'n Arratia'n eta Mungia'n eta Gipuzkoa'n Azpeitia'n, Legorreta'n eta Amezketa'n eta Araba'n. Kanpetzu'n, Aiala'n eta Zigoitia'n. (Zumarraga 1470)
Mendi-gaiñeko lerroa edo mendi-aldapa izan leiteke.

EGIAGARAI: Aldapearen gainean dagon etxea edo lekua esan gura dau.

EGIGUREN: “Egia” aldapa da eta “guren” gorengoa, biak alkartu ezker, aldapa guztien artean gorengoa. (Eibar-1589)

Bizkai'ko Markiña-aldetik urten eban eta Eibar-aldera be sartu da.

EGILAZ: Aldapa latza da adierazpena. Bilbao'n eta Tolosa-aldean agertzen dira lenengoak. (1454)

EGILUZ: “Egilaz”en ordeztzen artzen da eta Bizkai'ko Lezama'n da zarra, gero Araba'n eta Gipuzkoa'n. (1454)
Aldapa luzea edo mendi-kate luzea esan gura dau.

EGILEOR: Mungialdean agertu zan baiña Araba-aldean be ba-dago. (Isasti 1625)
Aldapa sikua esan gura dau.

EGINO: “Egi”tik etorria danean, egi edo aldapa txikia esan gura dau, baiña agino'ren aldakuntza be izan leiteke eta orduan zugatz bat, agiña, erderaz tejo esan gura dau eta “-o-” toki-atzizkia da. Agiña dagoan tokia. Ortik etorria da Frantziako “Agen” erria. (1587)

EGUREN: Egiguren'en laburpena da eta gorengo mendi-muñoa edo aldapa esan nai dau. (1622)
Lenengo Bilbao'n agertzen da. Gero Elorrio'n eta Gipuzkoa'n be bai.

EGUSKIZA: Fika'n dago izen au dauan etxe bat, antxiñakoa, baiña idazkietan Ernani'tik asi eta Gipuzkoa'n agertzen da. Aramaio'n be bai. (Gabiria-1462)
Eguzkia ugari dagon lekua da.

EIZAGIRRE: Lazkao'n asten da eta Gipuzkoa'ra zabaldu. Gero Kolonia'n be bai. (Zestona-1389)
“Eiza” “aize”tik sortua da eta “Agirre” agirian dagoana eta abereentzat bedar-lekua. “Aizetan dagoan abere-barrutia”.

EIZMENDI: Astesu'tik Azpeitia'ra 1625n. urtean, gero Berriatu'ra eta Naparroa'ra.
Aizea dagon mendia edo eiza dagoana izan leiteke.

ELKANO: Getaria'tik Gipuzkoa'ra.
“Elge” edo “elka” lur landua da eta “-no” txiki-atzizkia. (1523)

ELKORO: Bergaratik urtena da. (1728)
“Elge” edo “elka” lur landua da eta “-oro” toki-atzizkia.

ELEIZALDE: Tolosa'tik urten eta Gipuzkoa osoan. (1594)
Eleizearen ondoan dagoan tokia edo etxea da.

KLONAKETA

ITAUNAK

Gene-iztia edo genetika, gure oitura-arlotik begiratuta, eskuratu-bearreko ikasgaia dogu eta arlo orretan erantzun gaitxa dauken itaun asko agertuko jakuz.

Noraiñoko eskubidea daukagu guk geneak aldatzeko? Aldatu ete geinkez geneak gaisorik dagoan bat osatzeko? Bizidun baten geneak artuta beste bizidun bat sortu ete geinke, Dolli ardiaren antzera?

Geneak artuta geuk nai doguzan lako gizakiak sortu ete geinkez?

Gaiso bat osatzeko bide lez artu ete geinke ,gizaki barri bat sortu eta aren zatiak artzea?

Gaur gaiso etxe ospetsuetan enbrioi edo sorpenak ugari dagoz. Orreik gizakiak ete dira?

Eta iñoz sartzen ez ba' dira ama izango danaren barrura, zer egin? Orreik iltea guzakia iltea ete da.? Eta beste galdera asko...

AURRERAPEN BILDURGARRIAK

Aurrerapen aundiak egin dauz gizakiak edestian eta guztiak ekarri dabez onura aundiak.Gogoratu, esaterako berebilla edo egazkiña. Zebat aurreratu daben bizimodua, baiña zenbat eriotza, esaterako, egazkiñak!

Baiña bildurra sortu arren eta kalteak be ekarri arren,aurerra egin bear izan da. Olako bildurra ete da geneen arlo onetan dabillena, batez be klonaketarena?

Iñoz entzun dogu bultzia edo trena asmatu zanean, Aita Santuren batek debekatu egin ebala, ariñeketa orrek bizia arriskuan jarten ebalako. Olako bildurra ete da gaur gene-iztiaren arloan dagoana.

Irudi polita da Bibliatik artua dan au:Atsegin-baratzaren albo baten beti agertzen da sugea. Ori jazoten da azmakizunen munduan be.

ARAZO BATZUK

Gizaki eldu baten geneagaz beste bat egin ezkerro, gizaki barria umearen antzekoa izango da ala gizaki elduaren antzekoa?

Sortzen diran gizaki barriok askatasuna eta erantzunpena izango dabe ala lenengo genearen menpean egongo dira arlo onetan?

Ez ete da bide ori gu baiño adimen gitxiago ta indar geiago dauken gizakiak sortu eta jopuak, esklaboak, nai dan beste sortzeko aukerea?

Ondoren ikaragarriak ikusita, bildurra sartu jake asiera baten arro ebiltzanai be. Ondorenak ikaragarriak litzakez eta sortzailleak zigortu arren be,atzerarik ez daukenak.

OSATZEKO

Beste arazo aztergarri bat: Gaur dagozen ainbeste gaiso-era larri osatu-eziñak ikusita, artu ete leike olako giza barri baten zati bat gaiso orreik osatzeko. Orretarako gizaki barria il bearra dator.

IKASI TA IRAKATSI

Egin dodazan galderak egin dodazalako eta agertu dodazan zalantzak agertu dodazelako,jakitunak barre egingo dauste, ni arlo onetan oso ez-jakiña nazelako, baiña irakurleai berbea emoten dautset, arazo au aztertu eta gure aldizkari onetan barriak emongo dodazela. Ortik dator mundu barri bat eta guztiok izan bear arlo orretan jakitun.

OLAZAR' tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera erosten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbb'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

BI ALDE ETA BI ALDI

(1º Saria) (Bakarrizketa)

–BAT: Kaixo, ni Usurbeko Joxe naiz. Emezortzi urte ditut.

–BI: Ni berbera nauzu, Usurbeko Joxeba, baiña irurogeita amabi urte ditut.

–BAT: Orduan biok bat gera. Berrogeitamalau urteko tartearekin. Beraz, neure buruarekin, topo !

–BI: Orrelaxe da. Batzutan BAT eta bestetan Bi. Bi alde eta bi aldi nolabait esateko eta orien arabera iritzia. Bakarrizketan.

–BAT: Gaurko nire gogoeta 1940 ko amarkadan kokatzen da, 1936ko gerra amaitu berrian. Gertakari berezia izan nuen. Giltzapean egon bearrekoa. Gazte euskaltzale nintzen, eta aldi berean jakin gabe, bide orretatik abertzale ere banintzen, politika gordiñez ezer gutxi banekien ere. Ori nola ? Etxean ikasitakoarekin -gure nortasunaren muiña-: Euskera eta euskaldun fededunaren jokareak, gizalegea, e.a.; baserrian ainbat urteetan iraundu duena. Gurasoak baserrian jaiok ziren, gero kaletartuta, eta baserriko kultur altxorra beraiekin ekarri, eta bere artan jarraitu zuten. Gure kultura deuseztatu naiean, etsaiek euskal atea gogor jotzen zuteneko garai artan, izkuntza bakarra entzuten nuen gure etxeko sukaldean, euskera. Garai beltzak ziren gure jaioterriarentzat, eta etxe barruan ere emeki, emeki, itz egiten zen. Eta alde guztietatik bizimodu latza!! Gerra nardagarriaren ondorioa !! Gertakari berezi ura gertatu zitzaidanean, ametsik onenak ere banituen neure aberriarekiko. Eta egia esateko, Sabin Arana nor zen sakontasunez ez nekien. Gerra ostean ixilpean entzutzen nien gurasoei izen ori.

–BI : Nik ikusten dedanez, kulturaren eragiñak, batez ere euskerak, indar aundiagoa zuen zure barruan, politika gordiñarenak baiño.

–BAT: Orrelaxe da. Gure nortasunari eusteko politikaz baliatu bear izan du gure Erriak. Funtsean, ordea, ori ez da politika. Bakoitzak bere nortasunari eutsi nai ori ez da politika, eskubidea baizik. Beste Errialde askotan gauza bera sentitzen dute. Eta ez die iñork aurka egingo orregatik. Nire ordungo gertakariak eta iritzia azalduko dizkizut, BI; eta zuk zeure gaurko iritzia emango didazu.

–BI: Ondo dago. Eta asteko esango dizut, on puska bat ziñela; eta zeure barrunbea isladatzen zenuen besteengan, eta zu bezalakakoak zirela danak uste. Ez zenuen ikusten gizakiaren malizia.

–BAT: Gaur orrelaxe uste det, zuk adierazten didazun bezala gazte izatetik zaar izatera gertatutako aldaketaren eragiñez. Eta giltzapean egondako kide guztiak, antzekoak giñela uste det, ameslariak. Ez degu izan, ordea, geroztik, egindakoaren damurik, txingurriaren lana; txingurri gutxi bagiñen ere.

–BI: Azaldu ezazu, bada, Joxe gazte, 1948ko gertakari orren inguruan barruan darabilkizuna zure emezor-

tzi urte aietako ikuspegitik; eta idatzi egingo degu bakarrizketa. Orrela norbaitek, bear bada, irakurri egingo du. Eta nork daki! gazteren batek agian zerbait ikasi ere bai. Edo jakin beintzat pixka bat zeazkiago, nolakokoa zen diktaduraren garai gogor ura.

–BAT: Orrelaxe asi zen gertakaria. 1936ko gerra osteko ondorengo urteetan, begorreiko amarkadan. Orduan zigorpekoa zen euskaldun xumea izatea ere. Guk tarteka, atzeritik bidalitako propaganda zabaltzen genuen. Auteskunde garaia zen. Obeto esateko, auteskunde aiek itxura betetzeko agerpen bat besterik ez ziren. Aurretik dana egiña bait zegoen. Eta atzeritik bidalitako orrien edukiak, botoa ez ematera bultzarazten zuen jendea. Norbaitek zabaldu bear eta, gu egokitu giñen, beste batzuren artean. Biotz utsa nintzen eta benetan, barru-barrutik, maite nuen nire nortasunaren muiña. Nortasuna esaten det, euskaldun naizen aldetik. Etxean ikasitako euskera bait zen nire eragintzalea. Eskolan asi aurretik, ori bakarririk menderatzen nuen. Auzoko mutillek, “Poxpolo” deitzen zidaten. Klean, bi izkuntzak naastuta erabiltzen nituen; eta mutil aziagoei, fumatzen ikusita, “traï poxpolo” esaten nien. Gero, nire belarrien miñerako, “Poxpolo” izenordeak leku artu zion nire izenari auzoan. Orra berriz ere, euskaldunari bere jaioterrian, berea agertzeagatik, irripar gaiztoa. Kanpokoak nagusi, leen eta orain.

Nire jaiotorduan gurasoek zekiten izkuntza bakarraren eragiñez, nire barneko sentimentuak zenbait politikoen jokoarekin bat egiten zuen, 1948 ko gertakari berezi ura izan nuenean.

–BI: Politikaz ordea, ezer gutxi zenekiela esan dezun. ? Etxean zure aurrean ez zenuen politikaren adierazpenik, gurasoengandik. Bestela ere naiko lanak bait ziren orduan bizimodua aurrera ateratzen, gerra ondorengo eskasiak. Gaiñera, gerrak, beldur aundiak sartu zituen, utsagatik espetxeratzen bait zuten jendea. Jarrai dezagun zurearekin.

–BAT: Gertakari berezia izango zenaren aurretik, deia jaso nuen etxean. Alako ordutan, onelako tokian egoteko. An beste bi lagun zai egongo zirela eta. Beste bi lagunek bilduta besapean, zerbait zekarten. Propaganda. Eta illuntzerakoan orri aiek banatzeko, ezkakizuna. Zabaldtu egin bear genituela Euskadiren alde. Asi bagiñen, asi !! Etxez etxe ibilli giñen aldi batean, ate azpitik, orriak sartzen. Gero kale bazterretan botatzen; lantokietan, e.a. Alako batean kaleko argiak itzali egin ziren, eta illunpe artan, Erri gutzia menpean artu genuelakoan, bazterrean bota bearrean, aidera botatzen asi giñen, bai gustora bota ere ! Baiñan, uste gabea, orri mordo bat aizearen eragiñez egan zebillela,argia piztu zen !!! Eta laisterrean iesari eman genion.

–BI:Eta berealaxe, atzetik otsa: -” ¿ Qué andais chavales ? Azkarra ziñen eun metroan, eta gutxi batzutan metro dexente atera zenion galdetzalteei.

–BAT. Gero: ¿Por qué os escapais ? Orduan eta azka-

rrago ni. Atzera begiratzeko betarik gabe. Kilometro bat gutxi gora beera egin nuenean, atzera begiratu, eta ez nuen iñor ikusi, ez lagunik, ez poliziarik. Poliziak bait ziren galdetzailleak. Aal nuen eran patriketan neramazien orriak gaiñetik kendu nituen, eta pixka bat lasaitzen egon eta gero, etxerako bidea artu nuen.

Ez nuen gau ederra igaro!!!!. Lagunen berririk ez, eta urrengo egunean gerta zitekeenaren zain.....

–BI: *Ura pasata, bigarren egunean etxera norbait urbildu zitzaizun, eta gomendioa: Etxetik alde egiteko, lagun bat arrapatua zuela poliziak, eta zure billa ere laister etorriko zirela Nire lagun gizarajoa !! Patrikak orriz beterik arrapatu bai zuten. Mutil jatorra, ona baiño obea. An ez zegoen ukatzerik.....*

–BAT: Ori izan nuen gomendioa. Eta nik neure buruari: “Gurasoen etxe goxoa utzi. Lan tokia ere bai ????. Eta gero zer.....????”. Nik etxean jarraitzeko asmoa artu nuen. Eta urrengo egunean lanera ezertxo gerta izan ez balitz bezala joan nintzen. Eta orrelaxe geiagorik gabe, bi egun pasa nituen. Irugarrenean, goizeko ordubiak aldean: norbait ate joka.

–BI: *Zu berriz maindire azpian burua sartuta. Eta aita gizarajoa, atea irekitzera bere buruari esanez: - Nor arraio izan daiteke ate joka ordu auetan ! Ez zuen asko pentsatuko une artan, zer nolako ondorioa zetorren etxera !!! Iru gizon kopetillun ate aurrean. - Oiga: “Aquí vive José ?”.- No, no.... Aitak ikararuta. Gero:- Dice José ...j ah !... sí, sí.”.- Traemos una orden para detenerle”*

–BAT: Aitak, euskal senezko erderaz: - “Zer dala eta. Nire semea zuzena eta jatorra da. Eskolan ere asko saiatzen dana. Eta amabots urte bete zituenez gero lanean dabil empresa garrantzitsu batean. Ez det uste ezer txarrik egiña izango duenik”. Poliziak:- “Su hijo ha repartido propaganda en contra de lo establecido por el Régimen, y eso está prohibido”

Une orretan jaiki egin nintzen oetik, jantzi, eta beraien aurrera urbildu nintzaian. - Aita: barkatu, ez det uste ezer txarrik egin dedanik; baiña egia da lagun batzuekin ibillia naiz orri batzuk banatzen.

–BI: *Orduan poliziarena ez zenuen xamurra izan:- “Tiene Ud. que acompañarnos”. Eta aitak, erderaz, zekien erdera gutxian:- “Ni ere berarekin eramango nauzue. Ume onek ez dauka errurik. Ez daki politika zer dan ere”.*

–BAT: Danak alper-alperrik. Beean beste bi gizon, auek Polizia Armadakoak. Bien artean artu, gaizkillerik txarrena bezala, eta antxe goizeko irurretan, etxeko guztia arakata gero, aita- semeok Gobernu Zibillera. Bertara iritxi eta aitari an jarraitzen ez zioten utzi. Eta nik gelditu bearra izan nuen Bearko !!. Zutik ormara begira, urrengo goizeko amaiaik arte, Komisario Politikoa etorri zen arte.

–BI: *Bai, aita Gurutz, gizarajoa, buru makur, goizeko irurretan etxera, bakarrik, semea gabe. Ez zuen orrelakorik merezi !! Bera ere bereak eta bost pasatakoa zen gerra garaiean. “Salbatzailleak” Errian sartu zirenean, batzuk alde egin zuten, zeuzkatenak utzita. Gure aitak, ama gaixo zegoelarik, bertan jarraizea erabaki zuen. Bera politikan ez zela iñoiz sartu, langil apal bat besterik ez zela eta, zergatik alde egin ? Gaztetan baserrian, gero itxasoan eta azkenik ezkondu eta gero fabriketan. Ori zen berak egin zuen txar guztia. Orrela, bada, gerra asi berriko, gau*

batez, alde egin ez zuten lagun talde batek billera egitea erabaki zuen. Bata bestearen epelean, zer egin, edo... Eta orrelaxe oitura zuten txoko edo soziedade batean bildurik zeudela, goiko dendatik ogisazatzailleak poliziari deituta salaketa: - “ Abajo hay una reunión de rojos-separatistas” eta denbora asko baiño leen, antxe azaldu omen zan talde bat, agintari berrien ordezeko, edo, zirela esanez.. Nai zutenetik ondo ase, eta, ondoren ikaragarritzko mozkorra arrapatu omen zuten; gero, bilduta zeuden lagun guztiak kamioi zaar batean sartu, eta antxe eraman zituzten. Bitartean goiko dendaria irriparez, pozik gelditua izango zen egin zuenarekin. Auxe esaten gelditu omen zen: - “ Qué bien les han cogido a los ratones en la ratonera”. Amak ondorengo egunetan ez zuen aitaren berririk jakin, iñongo arrastorik ere ez. Auzoko gizonak amari esaten zioten : - “ Bixenta, aal dan guztia egin bear da espetxera, kartzelara, eraman ditzaten. An beintzat, txarrean bada ere, jakiñaren gaiñean zaudela egiten dute beren eginkizuna zigorlariek”. Beste leku ikaragarri bat bazen “ El sótano de la muerte” deitzen ziotena. Ez urik, ez komunik eta abereak baiño okerrago. Eta “salbatzailleak” zulo ori bete aala, gaueko ordu txikietan baituak artu eta ormaren aurrean “garbitzera “eraman zituzten. “ A dar el paseo” “salbaitzalle” en esanetan. Ortze zegoen aita. Lagun taldean bazen bat, pelotaria ain zuzen, eta orren emazteak, graduazio aundi xamarreko militar baten etxean lan egiten omen zuen, etxeko lanak orduka. Eta gure emakumetxoak, militar orren bitartez atera omen zuen arrastua. Non zeuden jakin ere bai. Elkarrizketatu omen zen nagusi jaun orrekin. Eta onek esan omen zion: “ A tu marido ya le sacaremos”. Eta emakumetxoak; “Todos son inocentes igual que mi marido; a todos o a ninguno”. Si matan a los otros, estoy dispuesta a perder a mi marido.” Orrela, nonbait ukitua utzia izango zuen militarren biotzondoa. Eta azkenean esan omen zion. “ Bueno, te conocemos y te creo de que son inocentes”. Los sacaremos a todos”. Lau egun bazeramazkiten “Sotano de la muerte” izeneko beebarru ikaragarri artan; eta azken gaua seguru asko mundu onetan, pelotariaren emazteak azaldutako adore eta kemenari esker, eriotz biderako sortutako etena izan ez bailtz. Bestela, ordurako larri ibilli, erabakia artua izango zuten baitzailleak: goizeko ordubietan edo irurretan artu, ormaren aurrean jarri, eta” betirako atsedena”. Baiña, esan bezala, pelotari lagunaren emaztetxoari esker, lagun guztiak aske utzi zituzten. Eta ustekabean orrelaxe azaldu zitzaigun berriro aita etxean.

–BAT: Eta tarte au egiñik, merezi zuen eta, noan berriro gaiaren arira. Aita niri Gobernu Zibillera lagunduta berriz etxera. Ni giltzapean gelditu nintzen. Iru egun Komisaldegian egin, gora eta beera, galderak meatxupean ugari. Zulo antzeko kalabozoan nengoen, ez zen ura leku ederra, ez arraiopola !!! Ola gaiñean lo egiten nuen. Eta gaztetasunaren kemenez, edo, lo betean igarotzen nuen gaua. Kalabozoa, bee-beean zegoen, eta tarte txiki bat besterik ez zuen, eta ura patio aldera, ez zen leiatilla ere. Beraz, aize zuzenik gabeko tokia; eta antxe iru egunez, sartzen zituzten guztiakin. Arratsalde oso batez, bost metro kuadro zituen zulo artan, ogei bat gizaki egon giñen. Danetarikoak nituen ondoan, gaizkilleak geienak, lapurrak, e.a. Askok tabakoa erretzen. Laiñope antzeko bat

sortu zen erretzailleek ateratzen zuten kearekin. Eta azkenean, orrela egonik, laugarren egunean, leporatzen zidaten guztia ukatuta, kartzelara eramateko etorri zitzaizkidanean, pozik gezurra badirudi ere, ! zulo ura baiño obeagoa izango zelakoaren ustetan. Nolabait esateko, zoko ura arratoientzat ere ez bait zen ona; oriek naiko tokia izaten bait dute. Eta kartzelan gero, aize garbia artzen nuen beintzat zuzenean, barroteen tartetik- leioa neure naiera irekita- sartzen zen gaueko giro prexkoarekin. Zeldan inkomunikatuta, andik egun batzuetara berriro Komisaldegira. Azken atxilotu nindutena izanik, ordu-rako beste lagunei ateratakoak izenpeturik zeuden. Bearko !!! Komisarioak, mai gaiñera bota zizkidan orriak esanez: -“ Es inútil que sigas negando, ahí tienes la declaración de tus amigos”. Ori ikusirik besteak esan zituztenak aurrean idatzirik nituelarik, burua makurtu egin bear izan nuen, kideek esandakoaren arabera. Eta pakean laga ninduten. Ni pozik, nolabait esateko, bultzakadak eta lepo aldeko estuasunak orduntxe bukatu bait ziren niretzat, eta puska baterako giltzapeko atsedean aldira eraman ninduten. Orduan orrela ziren gauzak.

Kartzelako bizimodua, azken batean barruan zaude- nez gero, ez da kanpotik uste izan daitekeen bezain txarra, nik ezagututakoa beintzat. Ango arazorik larriena, barruan egon bearreko iraupena. Leendabizian zeldan bakarrik inkomunikatuta, amar egunez, Juezak bereak burutu arte. Gero bi eratako egonaldia izaten genuen. Zeldatxiki batean, beste iru lagunekin, edo bestela gela aundiagoan. Bi baziren orrelakoak, eun bat edo geiago egoten giñen. Orduan ez omen zela preso politikorik, esaten zuen Erregimenaren zabalkundeak, eta gaizkigille guztiekin naasturik egon giñen kideak. Zeldatxikian egon nintzen leendabizian sartu berrian, beste iru kideekin batera. Gerora banandu egin gintuzten, eta aldi batean izan nituen iru lagunak auexek izan ziren: Bata: lapurreta koxkorren bat egindakoa. Bigarrena: norbaiti labana sabeletik sartuta zegoen. Labankada artu zuena oso indartsua omen zen, eta beti meatxuka ibiltzen zen orietakoa atzamarrak aurretik zituelarik. Ez zuen il ordea. Eta irugarrena: xumeena zen, eta arazo gogorra !! kartzelara eraman zuena. Artzaia zen, bere aita il omen zuen aizkoraz kolpe bat emanda, eta gero txabola erre. Beroaldi gogorra, benetan !!! Gaur egun, sikiatraren ikuspegitik ere ikusia izango litzake epaiketa. Orduan ez zen orrelakorik. Ez ziren oizko gaizkilleak, kartzelan sukaldaritzan jarduten ziren, eta zein baiño zein xumeagoak ziren. Ez nien itz txar bat ere iñoiz entzun. Gizon eldu eta euskaldun peto-petoak ziren; ni gaztetxoa, eta jakiñik gure uskeria, oso ondo tratatzen ninduten. Zeldatxiki lagun aiengandik, nik artu nuen baiño tratatu obeagorik ezin liteke artu. An errespeto aundiko gizakiak ziren.

Beste pasadizu batzuk aipatzeko: Zeldan, gelatxo txikia izanik, komuna, logela petatea lurraren gaiñean botata - eze galantarekin ipar aldera jotzen zutenetan - eta jantokia denak batera. Eta eginbearrekoak elkarren bistan, arratsaldeko zazpietatik urrengo goizeko zortziak arte. Alde orretatik gela aundiak obeak ziren, or komunak toki berezia bait zuten.

Dana ez zen txarra izan, ordea, ormen esiarene barruan. Frontoia ere bagenuen giltzape orretan, eta pelotan naikoa trebatu nintzen. Eguneroko jokatzeko bait genuen. Gaiñontzean, kanpoko egunkariak galerazita zeuden. Barrurako egindakoa zabaltzen zen “Redención” izenekoa. Liburuak ere galerazita zeuden. Irratirik ere ez zegoen. Kanpoa oso urrun ikusten genuen. Ain oso bestelakoa bait zen barruko bizimodua. Eguneroko eguerdian aitak, oitura zuen bere lo kuluxka utzi, eta etxetik bazkaria ekartzen zidan.

Zenbat orrelako !! Eta okerragoko. Gerra zela eta, milloi bat ildakoak. Eta zigorrak: bost, edo amar urteko kartzela, etxetik urrun, “jaungoikoaren izenean” eta “rojo-separatista gaiztoak uxatzeko” ibilli zirenen menpean.

-BI: Bai, gerra eta gerra osteko ondorio latzak. Azken batean erri xumea beti galtzaille. Alde batekoak eta beste-koak. Gudariak eta kintak tirata ibillitako soldadutxoak, amazpi urtekoak ere frentera eraman bait zituzten.

-BAT: Bai orrelaxe da BI. Guk urte beteko kartzela izan genuen, iru epaitegietan arazotxo ura epaituta. Leendabizi: “A disposición del Tribunal Militar”, por supuesto delito contra la seguridad del Estado y de los Ejércitos” Y no encontrando causa, pasa a disposición del Tribunal Civil.” Emen bein beineko askatasuna. Baiñan...baiñan..... Gobernadore Zibillak ordungo legeetan eskubidea izaten zuen beste epaitegira bidaltzeko arazo bera. Epaitegi ori gero izenez goxatu bazuten ere, “Tribunal de Orden Público” deiturik; leendabizian, 40-ko amarkadan, “Tribunal Especial de Vagos y Maleantes” izenekoa zen, eta orren menpean sartzen zituzten politikagatik atxilotutakoak, orrela preso politikorik ez zegoela, esaten zuten. Azken epaitegi orrek ere askapena eman ondoren, Gobernadore Zibillak, berriz ere, ukatu egin zidan askatasuna ondorengo iru illabeteetan. Gero, geiago luzatzerik ez nolabaiteko lege aien arabera, eta ordungo 2.500 peztako isuna. Gurasoek ordaindu zuten. Gure etxean askorik geiago ez zen izango. Giltzapetik irtenda, lantokian urrengo egunetik artu ninduten berriro. Lantegiko agintariek ez zituzten aintzakotzat artu frankismoak leporatu zizkidanak.

Azkenean, urte oso baten buruan, bein beineko askatasuna !!!!! Andik bost urtebeteren buruan epaiketa izan genuen. Sei illebete. Kartzelan urte osoa pasata gero. “Propaganda ilegal tendente a relajar el sentimiento nacional” eta antzekoak leporatu zizkiguten.

-BI: Eta orduan urte bete osoa pasatuta gero, sei illebeteko zigorra jartzeagatik ez zegoen orren ordaiña artzeko: ez biderik, ez eskubiderik. Eta gaiñera esan bezala, 2.500 peztako isuna.

-BAT: Andik pixka batera soldaduskara, eta an ere urte t'erdí, zainpean, “habiendo causado alta como fichado extremista en este Regimiento” jartzen bait zuen nire fitxak. Au dek arraioa!!! Eta txori bat akabatzeko adorerik ez. Ez orixe !! Ala ere isilik egon bear. Bearko!!

Ala bazan ala ez bazan, sartu dedilla sariketean.

(G.E) Lantxo au bukatzen ari naizelarik, irratia piztuta daukat, eta auxe entzun det: Etiopian, 11.000.000 biztanle gosearen menpean bizi omen dira.

Jose Maria Murua
EUSKERAZALEAK ALKARTERAKO
2002-ko IPUIN SARIKETARAKO

OLENTZERO DALA-TA

Zorioneko Olentzero dala-ta, egundoko alamina zabaldu izan dauskue, Gabon-aldian, gure izpar-edatzailleak: Bai irratiak eta bai-ta irratikuskiñak.

Asele zaarren batek azalduten dauskunez, Olentzero, mendi-gizon ori, ikasgiña ei-zan eta Josu jaio zala jakin ebanean, menditik errira jatsi ei-zan jaioparriaren barri emoten. Baia oraingo Olentzero-zaleeri Josu jaioparriaren barria emoten ez daustsiet entzun bein bere, ez irratietan ez irratikuskiñean. Jaiotikuskiñak be iñozkorik gitxien agertu izan dirala, uste dot.

Eta, esanak esan eta ikusiak ikusi,oldozkizun oneixek yatortaz gogora: Olentzero'ren atxakiaz erabilli daroen zabalkudea ez ete-da, gero, Josu'ren jaiotzearen barria estaltzearen siñismenaren arerioak eta ardurabakoak erabilli daroen estalgarria?

Olentzero ori dala-ta ez dala, orain umeeri, geienak beintzat, ez dautse ezer aittetuten, Josu jaio danik ez jaurespideko (erlegiñoko) beste jakingarririk. Eta, gero, gurasoakandik otoitz egiten ikasi ez dauanak, nekez jarraitu daike, bere bizitzan, Jainkoaren legean.

Lelengo jaunartzerako abadeak irakasten dautsen apurra berealaxe izten dabe eta gurasorik geien-geienak ez

dira arduratuten, aurrerantzean, euren umeak elizara bialduten. Eta, olantxe doakiguz amil-beera gure erriak. Auxe eldu dakigun zoritxarra!

Euren Olentzero dala-ta ez dala, ganorabakotu egin dauskuez, oraingo Gabonak. Guk geuk, Bizkaian ez dogu Olentzero bearrik. Gipuzkoa-aldetik eta Nafarroa-aldetik ekarri dauskue, ba, ipoin ori bazterrak lorrindduteko eta benetako Gabonen izakerea baztertuteko.

Areik, bai, gure umeteko Gabonak; Elizkizun ederrak, jaioparriari abesti pozgarri ta alaiak eta guraso ta nebarreben arteko eskatzeko berotasunean izaten genduan aparti eder eta gozoa. Txikitako Gabon-jai arein gomuteak bizi guztian irauten dauskue geure adimenean eta orain, Olentzero orregaz, Gabonen benetako izakerea ganorabakotu egin dauskue. Oraingo umerik geienak ez dabe izango, ba, Gabonen benetako gomutapenik euren bizitzan. Ez pozik ez itxaropenik itzal bizi izango dira: Jainko barik ez dago ba pozik ez alaitasunik.

Zuzen ala oker nagoan zeuk esan irakurle.

AURRE-APRAIZ'EK

EUSKERAZALEAK ALKARTEA

IPUIN-SARIKETA-2002

Bilbao'n, 2003-01-25 egunean Euskerazaleak Alkarteak igaz eratutako Ipuin-Sariketara agertu diran ipuiñak aztertzeke alkartu da Epai-Maia eta oneik izan dira ipuin sarituak eta idazleak:

1º saria: 300'50 euro	Murua'tar Jose Mari jaunari
2n. saria: 240'40 euro	Arrinda'tar Anes jaunari
3n. saria: 180'30 euro	Aurre-Apraiz'tar Balendin jaunari
4n. saria: 120'20 euro	Legarreta'tar Asier jaunari
5n. saria: 60'10 euro	Nar baitza'tar Alberto jaunari

Biotzez zorionak irabazleai

EUSKERAZALEAK

ALDERDI ABERTZALE EUSKALDUNAK

Gaurko denboretan badakigu xautzailletasunezko denboretan bizi garala, ainbat lelokeri egiteko bultz egin eta bideratzen gaituna, errez edo geinetan bere besoetan jausita.

Baiña, ez neban uste ainbestekoa izango zanik. ESAU`k egin eban antzera: txilista edo dilista`ren plater bategaitik ERRIA`ren arima salduko geunke.

Eta ori uste dot asi dala gertatzen gure denbora onetan. ERRIA gero ta ardura aundiagorekin asi danean betetan etxe nagusiko egin bearrak askatasunari begira eta arlo ortan aberastasun geiago lortzen asi garalako, dana jan gure daben MAMUAK asi dira agertzen, ia zein zati aundiagoa dan, norberarena izan daiten.

Bide orretatik, gure ERRI barruko izatean bereizketaren banakuntzak, amets-etenak, alegiñaren uts-egiteak, gure artean abertzaletasuna artzen asi dan indar argigarria iluntzea eta abar asko lortzen dira. Geiegi dala esan gura neuke.

Ez dago ESKUBIDERIK !! ERRIA`ren ardurazko ametsak apurtzen dabezan gauza orrek egiteko, eta lotsarik be ez dagoala esan leike.

ERRIA, bere askatasunezko ametsaren indarrak lortzen asi danean, asi garan antzera, EUSKO ALDERDI JELTZALEA`ren babesa da ! bear dauana. Eta ekintza ori bideratzeko, gure arteko lotsagizun aundia ta zintzotasuna bear dira, ELBURUA`ri aurpegi garbiakaz begiratzeko, gure askatasuna lortu gure ba dogu. Bestea, ELBURUA gure naikeriaren oinkapeetan eukitea da; eta berezitasunaren askatasuna lortzeko, ekintza orreik guztiz aurkakoak dira.

Beste alde batetik begituta, nortasuna galduta dabizen Euskal gizartearen seme/alabak, beste alegin indartsu bat bear dabelako, dagozan galderan geratu ez daitezkan; arrokerizko naikeri oiek indar aundia daukielako, bide oneko ekintzak ezeztuteko eta gaur jokutzen gabiltzana irabaziarren ametsetik ERRIA`ren osasuna dalako.

Aita Santi, Joxe Mari Latxaga eta Olazar`tar Martin`ek beti! esaten eusten nire benetako ulermen bidera sartu nintzanetik: “ Erriak eta euren seme/alabak bizitzan daukien egoera, euren alegiñagaitik merezi daben bizi-egoe-ra dala “. Eta Ludi fisiko onetan egi aundiagorik ez dago, ikerketaren azalpenak argi erakutsi egiten dabelako, gaia dala gure ametsaren elburua, JAINKOA eta LEGE-ZAARRAREN ikaskizunak alboratuta, naikeriaren alaitasunean bizitzeko. Batera, beti damuko bizi baten jarraituz, gaia`ren mozkorrek izaerazko arimaren ardurak garraztu egiten dabezelako.

Egia da berezitasunaren izaera bereiztasun utsa dala, batera, bereiztasun askorekin osotuta dagoelako, bai ta egokitasun orrek naastu ta arritu egiten gaitula, gure gizaizaera maitatzen dogulako. Baiña egia da maitasunean euki bear dogula, gure arimak gaiñean daukan gai ori JAINKOA`k ipinitako jantzi bizia dalako agindu dauskun ordezko neurketak egiteko.

Eta emen sartzen gara ikerketaren ikasgai oso baten, badakigulako banatzen arima eta gaia zer diran, eta Mundu onetan zertarako gagozan egokituta.

Guzti ori alkartuta, azken baten be gauza bitan geratzen da “ORDEAN eta MAITASUNEAN” ordezkaritzaren bizitza dalako egokitasun au, eta JAINKOA`k gozotu egin dualako maitagarria izan daiten gure eginkizunetarako.

Orregaitik...., gure ARBASOAK ordezkaritzako ekin-tzan neurrikoak izan ziran ? Oso gatz-da orduko denboran “ NEURRIAN “ alderdi-gabeko izatea, kontuan eukin da edesti guztian euki dabezan menperatzail-etsaiak berezitasunean urtu edo ezeztatu egin daitezkan. Baiña emen gagoz bizirik eurori esker eta beti askatasunaren amets-ean, bereiztasunezko legeakaz eta menperatzail guztien ikusi-ezinezkoak diranak, benetan alderdi gabekoak diralako askatasunari begira.

Eta kontuan euki bear dogu, gure NORTASUNAREN aldatz-bera sekula ez dala egokituia izan erri-xumeen bidetik, antziñatik gure jaurkintzan ezarrita etorri ziranengandik baiña, erri-barruan ikaragarritzko banakuntzak eginda euren gai-ametsari amore emon dagigun.

Guzti onek esan nai dauana, gure ordezkaritzaren arloan zor aundikoak gariela. Aldebatetik: euren denborak, ordezkaritzazko bizi-ekintza baten alderdi gabekoak izateko, ikaragarritzko gose-denborak ziralako. Bestetik: gure denborak ugaritasun eta aberastasunezko denborak diralako.

A ta guzti, ez da erreza naikerizko koipekerietan ez jaustea, tentaldia neurri aundikoa dalako. Baiña gure zorilarrarian.... olan jokatu.... aita-ama dan erriaren itxaropene-kin ?. Orretarako inork ! ez dauka eskubiderik, nor-bereen etxetik asita ABERRIAREN askatasuna leenengo ELBURUA dalako JAINKOA`ren bidea jorratzea azkene-ko, elburua lortu nai ba-dogu.

Mundu onetan, giza seme-alabaren ta erria`ren ABERRIA lortu bear dogu, JAINKOA`rena dalako, eta Euskaldunak konturatu bear gara, ezin obeko tresnak ARBASO`en gandik egin ta zainduta daukaguzela ASKATASUNANEZKO ELBURUA lortzeko, benetan, ordezkaritzaren lotsagizunezko zentzu aundi baten jokatzen ba dogu, zintzotasunezko borondateakaz lortzen dan gauza dana.

Ia ba Euskal anai-arrebok gure begiak zuzenean begituten daben iñoren naikeri gabe EUSKADI dan gure ELBURU nagusiraño, JAINKOA`k emondako ASKATASUNA lortu arte.

ATUTXA`tar PAUL

ZORNOTZAN 2.003`an URTARRILLA`ren 28`an

BARRIALDIA.- ROUSSEAU (1712-1778)

Barri-aldiko jakitunen artean berezia dogu J.J. Rousseau. Besteak baiño ezkererago dago eta gizarloan argiagoa da.

Onen ardura nagusia gizakia bera eta beronen gizarteratzea da.

Sarritan Rousseau agertzen da gizon basatia ona dala eta gizon gizarteratua txarra dala esaten, baiña ez da ori. Korapillotsuagoa da.

Ez diño gizona berez dala ona eta gizarateak txar biurtzen dauala, ez diño basora joan bear dala artzagaz bizi izatera, beste au baiño: txarto eratuta dagoan gizartea aldatu egin bear dala.

GIZONA GIZARTERAKO EGIÑA

Rousseau'k ba-daki, eta alan diño, gizona gizarterako egiña dala, gizonak gizartea bear dauala eta antxe baiño ez dala zorionsua. Baiña ba-diño gizona gizaratean txarreratu egiten dala, gaiztotu egiten dala be. Iluntasun oneri, geroago Freud'ek "jakintzan dagoan aiena" esango dautso.

Bere ustez, gizonak gizaratean maitasuna ta onartua izatea bear dau eta batzutan, ori lortzeko, egin bear ez leukena egiten dau. Ez diño ba, beste barrialdikoak diñoen au: "Gizona berez ankerra da eta gizarateak bigundu bear dau". Baiña bai, gizona sarritan gizaratean ankerrago biurtzen dala.

Ortik sortzen da Rousseau'ren gurari bizia "gizarte-ituna" sortzeko: Gizona ez datela sartu gizartera beartuta, berak nai daualako baiño. Ez dago esana egin bearrik, agintariak bidezkoak ez diranean.

Gizona gizaratean txarrago biurtzen ba'da, orrexegaitik da: Gizartera beartuta sartu dabelako eta ez gizarate-itunaren bidez.

Nork sortu eban gizarte gogorkerizko ori? Ba, lur-zati bat esitu ondoren, lenengoz, "au neurea da" esan ebanak. Eta ingurukoak ori onartu ebelako.

Voltaire asarretu egiten zan ori entzutean, baiña Rousseau'k esan gura dauana ez da besterik, batzuk jabe biurtzen dirala eta beste asko ez.

Orrelan gizarateak gizona ondasun-zale biurtzen dau eta basagizona beretzat bizi dan lez, gizaratekoak besteena bear dau.

ASKATASUNA

Orregaitik menperatzen dauz gizonak beste gizon batzuk eta gero menpekoak eukitea ona dala esaten dau. Ori esakeran au aiztuten dau: Askatasuna ta errugabetasuna antzekoak dirala, askeak eta errubakoak baiño ez dauz onartzen oneik. Gizakiak ez dabe nai askatasunik besteentzat, norberarentzat baiño. Orrek biurtzen dau oker, gizarate-gizona. Kant'ek esango leuken lez gizonaren gizaratekotasun-eziña da au".

Ara zer diñon Rousseau'k "Gizarte-ituna" bere liburuan: "Laterri sendo bat sortzea nai ba'dozue, ertzak, al dan bestean, urreratu egizuez; ez onartu eskekoak eta aberatsak batera izatea. Ertz bi orreik gizarate-bizitzarako kaltegarri dira.

Locke'ren askatasuna ta Rousseau'rena ez dira bardiñak. Locke'rentzat askatasuna ta jabetza batera datoz, Rousseau'rentzat batera datozenak askatasuna ta berdintasuna dira. Locke banaketara doa, Rousseau, ostera, alkar-laguntzara.

Orregaitik idatzi eban Rousseau'k eziketari buruz "Emilio" bere liburuan, eziketa ez dala irakatsiak emotea, balioak eskintzea, gizarate-balioak eta alkar-laguntzarako bidea eskintzea dala eta orretarako oiñarririk onena erlejiñoa dala.

AURRERAPENA

Barrialdiko beste kideak indar aundia emon eutsen jakin-gaien eta trebe-bideen aurrerapenari, baiña Rousseau'k geiago begiratzen dautso nekez bizi dan gizakiari: "Gizona, aske izateko sortua, toki guztietan espetxean bizi da. Besteen ugazaba dala uste izaten dau eta eurak baiño be menperago bizi da".

Aurrerapenak ez-jakiñak izatetik ateraten gaitula uste dabe besteak, baiña Rousseau'rentzat kalte geiago egiten dauzku gauzak txarto ikasi izateak, ez jakiteak baiño.

Gaurko erara berba egiñez, esango geunke, Rousseau'ren demokrazia ez dala ordezkoko aukeratzea, norberak parte artzea baiño: "Buru-jabetza ez jako iñori emoten, aldunak ez dira erriaren ordezkokoak, erriaren aurrekoak dira eta ezin leikee ezer ebatzi".

BENETAN BARRIALDIKOA

Emen agertu dogun pentsakerea agertuta, itaun au egin geinke: Ba-da Rousseau Barrialdiko (modernidad) diranen kidekoa?

Engels'ek "Anti-During" bere liburuan zalantza au agertzen dau, baiña Rousseau'ren bizitza erromantikoa ikusita, bere maitasun-bizitza larria kontuan dala, talde orretatik alboratzen daben zertzeladak itzi alde batera eta taldean sartu bear dala diño, esku-zuri feudo-zaleen aurka agertzen dalako. Ez eban lagundu feudoak kentzeko, baiña bai nobleen eta eleitzarren eskutik kendu eta burgesi barriaren eskura aldatzeko.

Bere bizitzaren azkenean idatzi eban "Ibiltari bakartiaren gogapenak" deritxon liburua. Berak ez argitaratzeko eskatu arren, argitaratu zan. Or agertzen da orain egin dogun neurketaren antzeko zerbait.

OLAZAR'tar Martin'ek

2002 URTEKO EKINTZAK

Gabon, Jaun-andreok

Leengo urteko ekintzen azalpena emon aurretik, Yon Egileor, gure batzordeko idazkariaren eriotza, sarrera antzera aipatu bear dautsuet. Galpen andia gure batzordean, egiten eban lana oso zeatz eta ondo beteten ebalako, oi eban lez isillik eta zeaztasunik andienaz. Onezaz gaiñera, gure egutegiko lankide genduan, landaretza saillean lan jakintsua egiten ebana, nekazaritza-saillean baimenduna zalako. Euskaltzale eta lagun on bat galdu dogu, eta guztioi zuen gomutamenean gorde dagizuela eskatzen dautsuet, otoi batez lagunduta.

EUSKAL IKASTAROA

Beti lez, gure erakundeak Urrilla'n euskal ikasleentzat oiko ikastaroa atondu dau, eta betiko itxuran izenak emon izan dira, bizkaieria ikasi gura dabenezat. Ba-dira ogeitabost urte baiño geiago eten barik euskera-ikastaroak gure etxean emoten doguzala.

EUSKAL ASTEA

Igarotako Azilla'n oikoa dan lez, Euskal Astea atondu genduan Bilbao'ko Udalaren laguntzaz, 25'tik 29'ra. Ona emen jarraian emondako gaiak eta itzularien izenak:

- Bertsolaritza: Legarreta'tar Asier.
- Euskaldunak Europan: Atutxa'tar Paul.
- Leenengo kristiñauak Mungialdea'n: Olazar'tar Martin
- "36'ko gudaldian su-iskillotutako idazle gazteak": Latxaga, Atutxa eta Olazar.
- Emeterio Arrese olerkari giputza: Zubiri'tar Iñaki.

Itzaldiak oso zudugarriak izan ziran, eta entzuleen kopuru polita aditzeko etorri zan. Emondako gaiak "Zer" gure aldizkarian agertzen asi dira.

IPUIN-SARIKETA

Idazle barriak sortzeko, eta irakurleen euskerarekiko zaletasuna piztuteko, urteko azken aldian oiko Ipuin-Sariketa atondu dogu.

Ona emen, leiaketa orren sailkapena:

- 1'goa MURUA'tar JOSE MARI JAUNA
- 2'gna ARRINDA'tar ANES JAUNA
- 3'gna AURRE APRAIZ'tar BALENDIN JAUNA
- 4'gna LEGARRETA'tar ASIER JAUNA
- 5'gna NARBAITZA'tar ALBERTO JAUNA

Sariak, oneik izan dira:

- 50.000- 300'50 euro
- 40.000- 240'40 euro
- 30.000- 180'30 euro
- 20.000- 120'20 euro
- 10.000- 60'10 euro

EGUTEGIA

Betiko oitureari jarraituz 2003 urteko egutegia gertatu genduan, Bizkai-Bilbao'ko Aurrezki Kutxaren diru-laguntzaz, eta "Euskerazaleak" erakundeak atonduta. Arrakasta andia lortu dau dalako egutegiak, eta aleak artu daitekez BBK etxeetan, Aurten be datorren urtekoa atontzen asi gara.

"ZER" ALDIZKARIA

Bizkaieraz argitaratutako aldizkari bakarra kalera urten da gure izkuntzaren aberasgarria izan daiten, ain gitxiko laguntza gure bizkaierak artzen dauanean. Gai asko ta jakingarriak Olazar'tar Martiñ'en zuzendaritzapean agertzen ditu aldizkari maite onek, eta gure etxeetan sartzen dan aize garbiaren antzeko dan aldizkari onek zuen egoitzak aberasten jarraituko dau Jaungoikoak Lagun. Eta bizirik iraun dagian, bearreko da guztion diru-laguntza, eta idazle zintzoen idazlanak bizi-arnasa artu dagian. Bialdu egizuez beraz, zuen idazlanak.

LAGUNTZAK

Azaldutako ekintzak burutzeko, bearrekoa da guztien diru-laguntza, bestelan euskeraren aldeko gure asmoak ustel urtengo litzakiguz. Eralguntzak gero ta andiago, eta sarrerak ostera, gero ta urriago dirala neketsu egiten da gure adoreari eustea. Erri txikietan batez be arpidetza-dirua jasotea oso zailla da, eta orregaitik bearrekoa da arpidedun bakoitzak BBK'an dogun kontu agirian urteko saria sartzea.

Edozelan be, eskertu bear dogu, Bizkai'ko Foru Aldundiko Kultur Sailletik jasotako diru-laguntza, Bilbao'ko udaletikoa, BBK'tikoa, eta Eusko Jaurlaritzakoa.

Eta beste barik, biotzez agurtzen zaituet.

**Zubiri'tar Iñaki
Lendakaria**

**ZORIONTSUA IZATEKO BESTE
BATZUK IRAINTZEN DAUZANA,
ONEIK BE ZORIONTASUNAREN
BILLA DABELTZANEAN, ORI EZ DA
SEKULA IZANGO ZORIONEKO.**

BUDA'K

SALMO EDER BATZUK

Aramaioko abadea dan Emilio jaunagandik artu doguz pozez salmo eder oneik. Eskerrik asko.

Orduña'ko Klaratarren Lekaiame-etxean dagon Aldalur eta Iruretagoiena'tar Justiñe lekaimeak egiñak eta, 2002-03-29'an emonak dira. Barriro eskerrik asko.

100 salmo asko dira argitaratzeko, baiña illero iru

argitaratuko doguz, urtean 33 eta iru urtetan errez agertuko doguz guztiak.

Beti aurrean doiñua agertuko dogu.

Izango al dira lagungarri taldeetan alkartzen diran euskaldun kristiñauentzat.

Martin Olazar'ek

Salmo berriak kantatzeko Doiñua!

(1)

San Juan

Jaun-goi - ko Ai - ta mai - te zai -
 tu - gu ze - ru lu - rren E - gi - lle - a Jain - ko
 se - me - a , mai - te zai - tu - gu guzti -
 on Sal - bai - tzai - lle - a Jaun Es - pi - ri - tu San tu - a
 ze - ra a - lai - ta - sun e - mai - lle - a gu - re
 a - ni - man Se - na - rra ze - ra po - za
 sor - tzen lar - gi - lle - a

(4) LAUGARREN SALMOA: Ama Birjiña'ren etorrera

1

Igarle aundi Isaiasek
Agindu zigun lendikan,
Kristo Mesias jaioko zala
Birjiña batengandikan.
Argertuko zala aur txiki bat
Jaungoikoa izanikan.
“agintaritza eramango du
bizkarrean arturikan”.

2

Au zan denbora eurkeratua
Jaunak guri argitzeko,
Kristo Mesias batzeturrela
Munduari agertzeko,
Nazareteko Joakin santu
justuari entzuteko;
otoitz au sarri egiten zuan
arren Kristo bialtzeko!

3

Joakin santuak ta Ana santak
samiñez ez urtutzeko,
Jaungoikoari eskatu zien
berek in errukitzeko.
Ondorengo bat eman zeuela
pena txar ori kentzeko,
eskeiñiko zeuela Eleizan
Jauna bertan serbitzeko.

4

Joakin santua famili eske
otoitz egiten zeguan,
Jaunak berari Santu Gabriel
biraldu zion orduan.
Agindu zioan: “Alaba on bat
mirariz dezu munduan,
Maria jarri izena eta
gazterik sartu tenpluan”.

5

Gabriel onek Ana santari
Onela zione esana:
“Alaitu zaite zu zera Jaunak
aukeratu zaituana.
Izango dezu alaba santa,
zuk ixilik gorde dana;
au izango da Kristo Jainkoak
Ama izango duana”.

6

Joakin santua ta Ana Santa
senar emazte maiteak
Jerusalengo Eleiz aundira
juan ziran pozez beteak
Jaunari poza ematen zion
ain umillak ikusteak,
eskerrak eman zizken Jauna
goratuaz egiteak.

7

Lenengo kontzebitze ondoan
Ana santan sabelean,
anima sortu baiño lenago
jarri zan osasunean,
Jaun Espiritu Santuan lanez
Jesukristoren antzean,
gu gizonari zeru ederra
lenbaitlen eman naiean.

8

Jaunak Anari esana zion
“Zu nere serbitzaria;
nik sortu nuan gizona eta
nai diot eman saria.
Zeruak daude itxiak eta
nai det izan errukia”.
Neurri gabeko argitasuna
Jaunak zion ixuria.

(5) Bostgarren Salmoa Ama Birjiña zan Sortzez Garbia

1

Mariarentzat milla aingeru
aukeratu laguntzeko,
etsaia arro zebillelako
emakumea galtzeko.
Migel santua guztien buru
jarri zuan agintzeko,
Kristoren Ama izango zala
berari ez esateko.

2

Mariak zuan bere gorputza grazi mirariz sortua,
bere aita zanJoakin santua
urtetan aurreratua;
ta bere ama Ana santa zan
gazterikan agortua,
aragiaren kutsurik gabe
Jaunak zuan garbitua.

3

Esaten dute: amak semea
osatzen du sabelean,
sortzen danetik berrogei egun
gora-bera diranean.
Alaba bada larogei egun,
denborale au danean;
eta Maria osatu zala
zazpigarren egunean.

4

Gorputz auxe zan Alguztidunan
oso gogo aundikoa,
bere bizitzan griña txarrikan
ezin sentitutakoa.
Sentitzen zitun bero ta otzak
gu baiño minberagoa,
Jaunak au sortzen ipiñi zuan
enpeiño aundiñekoa.

5

Jaunak sorturik anima santa
gorputzakin batu zuan,
bere iduri ta antzekoa,
grazi-bizitza osuan.
Maria bezin aur santarikan
etzuan sortu zeruan,
eta ezta're iñoiz sortuko
betikotasun osuan.

6

Berekin uso arrazoizkoa
zuan sortu zanetikan,
ain zan garbia graziaz betea
Jauna begira pozikan.
Etzuan une txiki bat galdu
grazi doaien lanikan,
ta Ana santa Jaun Espirituz
gelditu zan beterikan.

7

Jaunak Marian anima sortu
zuan lenengo uanean,
grazi doaiez gaiñera zeuzkan
birtuteak goienean.
Fedea zuan ezagutzeko
zan Jaungoikotasunean,
ta ezagutu zuan nola zan
Jauna Irutasunean.

8

Jaunak emanik berekin zuan
esperantza birtutea,
ezaguturik zoriontasuna
beregana nai juatea.
Irugarrengo birtutea zan:
Jauna zuan ain maitea,
serafin danak baiño geiago
zan maitasunez betea.

(6) Seigarren Salmoa Ama Birjinaren jaiotza

1

Luzifer bera arro zebillen
Ama Santa galdutzeko,
eta eldu zan denbora ura
aurra argitaratzeko.
Jaunak aurrari esana zion
argitara agertzeko.
Aurrak Jaunari erantzun zion
berak bedeinkatutzeko.

2

Bedeinkatu zuen Jaunak aurra
ta jaio zan argitara,
oiñaze gabe, oso garbia,
mirariz mundu ontara.
Amak etzuan eman nai izan
aurra iñon eskutara,
amak oialez bildu ondoren
etzainik jarri lotara.

3

Anak Jaunari eskatu zion
bere naia agertzeko,
Jaunaren Ama izango zana
azitzen erakusteko.
Jaunak erantzun amak bezela
bere aurra zaitutzeko
errebentzirik agertu gabe
barruz errespetatzeko.

4

Aurrak Jaunari eskatu zion
Mesias biraldutzeko,
igorlen bidez agindu zana
gizonak zeruratzeko.
Jaunak pozikan egindu zion,
zeukan Ama izateko,
Jainkoa gizon egingo zala
gizaldiak salbatzeko.

5

Betiko Aitan dei bat entzun zan
"Maria jarri izena.
Grazi ugarik indartuko du
izen au deitzen duana.
Au izango da erremedioa
samiñak pozten diena.
Au izango da etsai guztiak
zapalduko dituen.

6

Sortzez Garbia jaio zanetik
zortzigarren egunean,
izena jarri zien Maria
Jainkoaren esanean.
Jai aundi egin zuen egun au
alabaren izenean,
aingeruk ere abestu zien
alaitasun aundiñean.

7

Lege zarreko agindua zan
amak alaba bazuan,
larogei egun garbitu zedin
Eleiza jua ezin zuan.
Pekatu kutsu danak kentzeko
limosna egin onduan,
alabarekin ama Eleizan
sartu zedilla orduan.

8

Pekatar bat bazan bezela
egun auek pasatuta,
ama Eleizan sartzera jua zan
aurra besuan artuta,
eskeiñi zituen arkumea ta
gauza geiago batuta.
Apaizak bedeinkatu zituan
amak apal eskatuta.

ALDALUR'tar JUSTIÑE

OKOITZA

“Milian” deritxon eta oraintsu argitaratu dodan elebarrian Akosta’ko Lekaide-etxetik etorri zirala Bizkai’ra lau misiolari edo Barri Ona’ren ekarle diñot eta onein izenak be asmatuta agertzen dira: Bixintxo, Braulio, Laurentzio ta Milian.

Lekaide-etxe ori, oraindiño gaur be Akosta izena deroan, errian egoan. Gorbei mendiaren barrenean, Zigoitia deritxon udalaren barruan eta Bizkaia’gaz Ubidea’n bat egiten dauala.

Andres E. Mañarikua’ren liburu bat

Orain irakurri dot Andres Eliseo Mañarikua’ren liburu bat: Vizcaya, siglos VIII al XI. Los orígenes del Señorío, (Grijelmo S.A. Bilbao 1984).

Asko poztu nabe Okoizta edo Akosta’ko lekaide-etxeari buruz dakazen jakingarriak, naizta asko izan ez, eta irakurleen pozerako agertzen dodaz emen.

Abadeak eta ermitak

Zergaitik esaten jake gura baseleizari “ermitak”? Ez ete da or asieran lekaide edo lekaike bakartiak bizi ziralako? Izan ete ziran Akostatik etorriak? Ala Donemiliane’tik edo Leire’tik edo Euskaldunen Kapadozia (Laxaga’k) dan Trebiño’tik edo Akosta’tiik urrago dagon Baldegobia’tik?

Zergatik esaten jake eleiz-taldeetako arduradunai “abadea”, izenonek lekaideen buru dana adierazten dauanean?

Jakingarri barriak

Baiña goazen gure Mañarikua’k, esandako liburuan, dakazen barriak agertzera.

1.– Elosu’tik urrean

Ara zer diñon 45n. orrialdean: Araba’ko toki-izen batzuk 1.025n. urtean agertzen dira Donemiliane’ko idazti zarretan eta 12’tik 9 Legutiano-aldean dagoz: 1 Ganboa’n, 9 Legutiano’n eta 1 Zigoitia’n (Okoizta’ko San Bixente, Elosu’tik urrean).

2.– Bibere gotzaiña

103n. orrialdean beste au diño: Llorente edestilariak “Bibere” gotzaiña Kalaorra’ko gotzaiña dala diño eta Araba’ko Okoizta bizi dala. Lenengoa ez da egia eta bigarrena, Okoizta’n bizi dala, ez da agertzen berak diñoan agirian.

3.– Fernan Gonzalez eta Bizkaia

262n. orrialdean agertzen da Perez de Urbel edestilariak diñoana: Fernan Gonzalez Araba’ko kondea

zala eta Bizkai osoan agintzen ebal. Agiriak Araba’ko konderriaren arazoetan agertzen dabe Gorbeia-barrenean dagoan Akosta’ko Bizente Deunaren lekaide-etxera artea. Ortik kanpora ez da agertzen.

4.– Bixenti deunaren monastegia

Esandako gauzea da Fernan Gonzalez Araba’ko arazoetara sartzen dala, Gorbei-barrenean dagoan Akosta’ko Bixenti Deunaren monastegiraño.

5.– 265n. orrialdean au diño:

984n. urtean Albar Okoizta’ko abatak Naparroa’ko II Santxo Garzes erregeari dei egin eutson , bere lekaide-etxeari egokiozan amarrenak kendu nai eutsozan Munio Araba’ko gotzaiñaren aurka.

6.– 283n. orrialdean beste au diño:

Don Lope, Lope Sarrazines bere da eta 984n. urtera aurreratzen da Okoizta’ko agiriari ezarten jakon geigarrian.

7.– Okoizta’ko idazkiak

Okoizta (Akosta)’ko idazki zarrak Kukula’ko Donemiliane’ren kartularioan dagoz eta urte oneitakoak dira: 871, 984, 1034, 1062, 1067, 1084, 1096 eta 1106. Ikusten dan lez bat bera be ez Fernan Gonzalez’en sasoikorik. Urren dagoana 984n. urtekoa da. Kondea il eta 14n. urtekoa da au.

Ondorenak

Lerro-artean irakurri ezker, ondorengo oneik atera geinkez:

- Okoizta edo Akosta lekaide-etxe garrantzitsua da.
- Gorbei-barrenean dago, Elosu’tik urrean.
- Lekaidetxe onetan agiritegi bat egoan.
- Emengo agiri guztiak Donemiliane’ko kartularioan dagoz.
- Agiriak diñoskuenez gauza ziurra da lekaide-etxea tente egoala 984n. urtetik.
- 1106n. urtera arte, zalantza barik lenago eta geroago.
- Aundia ala txikia? Garrantzi ori Fernan Gonzalez’en aurrean eukiteko, aundia.

Bixente Latiegi’ri eskaria

Bixente arlo orretan dabillen ezker, emen aitutatuko agiriak aztertu eta eurretan agertzen diran barriak emon dagiguzala eskatzen dautset. Asko poztuko nintzake.

Olazar’tar Martine’ek

GIZA-GIZA (ANTROPOLOGIA)

Gure bizitzan norberaren nai-gabeen une batzuetan galderak sortzen dira. Oso pozgarriak dira batzuk. Alde batetik galdera oneik zintzilizka itzi ba nebazan be uste-kabekoa izan zalako, bestetik, poztasun aundiaz artzen dira galdera arduradunak direnean.

Zornotzako koralekoak garenok (S.A.C.Z.), egunero edo beintzat sarritan lagun taldea joaten gara alkar ikusteko eta karta-jokuan egiteko, abes-taldearen saioaren ordua elduarte, geienak abeslariak diralako.

Esango neuke alkarrean gure-arteak onak dirala lotsagizunen aldetik, asieratik baimenezko legeak, guztiz demokrazian ondo ezarri ziralako.

Kartetako mus-joko betean egon giñela «URI-BIONDO`tar PABEN» agertu zan niri begira, eta esku-arteak Euskerazaleak egiña eta BBK argitaratua dan tako-egutegiaren orrialde bate daukala niri itanduteko zeozer esan eban:

Paul! jakidezun idazten dauzuna nik irakurten dotela, GIZA-IZTIA zer esan gura dau?

Eta nik erantzun orduko berak esan ustan, orritxoan ipinten eban gaztelera izkuntzan itzulita «Antropologia?».

Nik buruagaz baietza emon neutson, baiña astirik ez eban emon, bereala abes-saioaren gelara joan zalako, Giza-izti itzarengandik daukan edesti labur bat asalduko dautzuet.

Orain urte bi dirala, Joxe Mari Latxaga eta ni, sarritan joaten giñan idaz-lan egitera, berak Lizarra`ko etxean daukan liburutegi ederraren laguntzagaz, eta an egon nintzan idazten “EUSKAL-ERRIAREN IZAERAN «RH» DALA TA..... “ idaz-lan au egutegian 2.003`an Urtarri-lla`ren 29`ko egunean agertzen da.

Antropologia`ko itza bear-bearrezko idaztea izan zan lez, Latxagari itandu neutson, ia zein izango zan itz onen itzulpena Euskaraz idazteko, eta berak batera itaundu ustan: «iztegi orrek zer esaten dau?. Nire erantzuna:» Antropologia besteri ez! eta nik uste dot Euskera elderdu egin orduko, danok beste itxura bategaz lan ta ikasi egin bear geunkela ez?, nai itz barria izan.

Latxagak esan eban: artu egik Mugika`ren iztegia gaztelera`ik Euskerara ia zer esaten dauan.... .

Ez dakar ezertxo be esan neutson.

Eta berak oster a be esan eban: artik Euskeratik-gaztelera itzultzen dauana eta begitik “IZTI” itzak zer esangura dauan.

Artu neban iztegia, eta “IZTI” itzarengana eldu nintzanean: “tratado, curso de, escrito, -logia, -nomia: “izar-izti, ortz-izti = astronomia“. Orregaitik, nire itzulpena gizartearen arloko bidetik bear zan lez “GIZA-IZTIA“ antropologiaren itzulpena.

Olazar`tar Martin `eri be itandu neutson eta bardin esan eban. Or ba nun dagoan akatza berba barrien itzulpenak aurkitzeko.

Baiña ni geien arduratzen nauena “bi-2.000-mila, ELKAR“ iztegi espainiera-Euskara, Euskara espainiera artuta, gaztelera eta Euskaraz itz bardiñak dirala. Oneik bai iztegi aundia egin eta denbora gutxian. “Iru-3.000-mila” iztegia artu neban eta onek be bardiña, ez eban ekarten. Alangoko erabagiak artu ez gero denbora elduko da Euskalerrian baten batek itandu egingo dauana, ia euskaldunik badagoan lur onetan.

Ni burdinezko lantegitik nator, eta badakit makiña batek, berak bear dauazan gauzakin tresnatura joan bear dauala eta jatorrizko atalakin antolatuta; amarka-neurriko kiribil edo biurkin arra, Ingelesen beatzeko (pulgada) zorro (tuerca) baten sartu ezker “BABEL`eko DORREA “ bertan daukazu tresnamenduta, ezertarako balio ez dauan langaillua. Eta zori-onez gai onetan sortzen dan guztia lege bardiñakin gauza guztiak egin bear dirala, beste naikerizko legerik ez dagolako.

Gure Euskal-izkuntzaren gaztelua zeaztasunean antolatzen badogu, etsaiak ez dabe botako errez eta nik esango neuke, ez dabela botako. Baiña guk bideak zabaltzen badautsaguz, errez sartuko dira eta bota be bai, gure gazteak ikasiko daben izkuntza etzaiarena izango dalako.

Euskaldunak ez dogu aaztu bear sekula! “EUSKEREAK, EUSKAL ARIMAREN SINISMEN OSOA DAUKALA“

ATUTXA`tar PAUL


ZORNOTZAN 2.003`an ZEZEILLA`ren 4`an



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI`KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

7.- EUROPA SORTZEN

Erroma'ko aginterri nagusia ondo itxita ta zainduta egoan, naizta azkenerantza bigintasun bildurgarria sortu bere barruan. Iparraldean egoan "limes" edo muga eta onek lotu ebazan iparraldean bizi ziran basati guztiak III gizaldira arte, baiña 250n. urtean apurtu eben basatiak



Teodoriko'ren aldiran Rabena'n bateo lekua.

"limes" ori eta Erromarantza urreratu ziran. Izen asko esan geinkez gizaldien joana ikusita: Unoak, germanoak, angloak, sajoiak, alanoak, sueboak, bandaloak, lombardoak, godoak, frankoak, eslaboak...

Basatiak bitariko erasoan egin eutsoen Erroma'ri. Alde batetik lurralde zabaletara sartu eta eskuratu, bestetik, ori baiño txarragoa zana, itunen bidez Erroma'ko erakundeetara sartu. II. gizaldian asita egin ziran olako itunak eta laster asi ziran basatiak erromatar izaten, gudarosteen buruak izatera eurak eldu ziran, senatura be eurak sartu ziran. Bisigotoak beti agertzen dira erromatarren alde.

Basatiak ez ziran asko. Esaterako bisigodoak 200.000 baiño ez ziran eta euren menpean geratu ziran 6 milloi Ispania'ko erromatar. Beste basati motak be antzera jabetu ziran: Frankoak, 507n. urtean sartu ziran, eruloak Italia'ra 476n. urtean, Lonbardoak Italia'ko iparraldera VI gizaldian eta or inguruan angloak eta sajoak be.

Basatiak askotarikoak ziran, esan dogun lez, baiña asko ez ziran agertu nagusi. Ona emen geratuak: Italia'n lonbardoak, ostrogodoak eta eruloak, Ispania'n bisigodoak, Galian frankoak, Alemanian sajoaiak eta Ingalterra'n angloak.

Zelan eratu ziran basatiak lurralde bakoitzean? Guztiak antzera: Azpian len bizi zan jentea geratu zan, erromatar izanak geienak, orreine gainean basati gudarosteen ezarri ziran, baiña ia oso-osoan erromatarren legeak artuta, lenengo Euriko'ren legedia

eta gero Fuero Juzgo "Forum judicum". Eta beti irugarren urratsa, almen guztiak dauzan monarkia izaten zan, asieran aukeratu egiten eben baiña gero etorpidea zan gurasoakandik semeetara. Izaten eben talde eretxi-emoilleren bat, esaterako Toledo'ko kontzilioak, baiña erregea beti zan aske ta nagusi.

Or daukaguz ba, basatiak euren lekuetan, baiña basatiak, jakintza-bakoak, ezelako edertirik edo filosoforik ez eukenak. Erromatarren pentsakeran munduaren azkena etorri da. Baiña mundu bakan bat asi da sortzen. Nondik dator itxaropena? Eleizea daukagu or zain: martiriak il ziran baiña euren odola azia izan zan eta Konstantino'k eskubide aundiak emon dautsoz Eleizeari, Aita Santua ez da erregea baiña erregea baiño be gorago dago gauza askotan.

Eta zer egingo dau Eleizeak? Erri atzeratu guzti orrei Jesus'en Barri Ona eta Jakintza-bideak zabaldu: Eleiz-alkarteak eta eskolak eta Ikastetxe nagusiak. Lan aundia, ikaragarria! Baiña prest dagoz misiolariak lan ori egiten joateko. Eslaboen artera Gregorio II'ak Zirilo ta Metodio Santuak bialdu ebazan eta eurak asmatu eben "ziriliko" deritxon abedea idazten irakasteko; germanoen artera Bonifazio santua doa; frankoen artera Remijio santua, onek biurtuko dau Klodobeo erregea; angloen artera Agustin santua eta Irlanda'ra Patrizio santua. Oneik, lekaideak lagun dabezela, eratuko dabez errialde biok;

*Kurutzeak egiten
eta apaintzen
zaleak ziran aldi
aretan, bideetan
be bai.*



Ispania'ra bisigodoak kristiñau zirala etorri ziran baiña ariotarrak; Ermenejildo santua biurtzen da katoliku eta onegaz batera ispania'ko guztiak. Emen jakintza aundia

sortuko dabe Toledo'ko kontzilioen bidez. Or daukagu Isidoro santua, orduan munduko gizonik jakintsuena, eta laguntzaille izango daz bere sendiko diran Leandro ta Funjentzio gotzaiñak.

Lan aundia basati areik federa ta kulturara sartzeko Eleizeak artu dauana, baiña arerio ikaragarri bat sortzen




Perugia'ko eleiza bisigotikoa, Teodoriko'ren aldian.

jako: Maoma ta Islandarrak: Ispania osoa zapaldu eben eta Afrika'ko eleiz-alkarte guztiak lapurtu.

Edertiaren edestia egiten gabiltzan ezker, goazen erririk erri. Ez dogu gauza aundirik aurkituko oraindiño, baiña mundu barri baten asieran gagoz.

Italia'n Ostrogodoak eta lombardoak daukaguz. Ostrogodoa zan Teodoriko eta onen aldikoa da Ariotarren bateolekua Rabena'n San Apolinar eleizatxua be egin eban, San Vital elezea be bai eta bere illobia



Frankoak Poitiers'en egindako eleiza ederra. Lenagoko eleizen ondakinak artzen dabez.

526n. urtekoa. Jakintza-arloan Boezio izan zan filosofoa, Aristoteles azaldu ebana. Kasiodoro be jakituna ta ministroa zan baiña erromatar garbia. Lonbardoak erromatarren etxe-ederak bota eta arein

gaiakaz zerbait egin eben, esaterako Perugia'ko jauretzea. Kurutzea apaintzen be zaleak dira. Obiedo'n dagoz D. Pelaio'n kurutze ederra eta Naranko'ko Andra Mari ta Kamara Santa.

Ispania'n bisigodoak geratu ziran, oso erromatar biurtuta. Jakintza au Eleizearen bidez artu eben: Gotzain ospetsu asko dagoz euren artean San Braulio, San Julian, San Fruktuoso, San Leandro, baiña jakituri guztia batzen dauan San Isidoro, ospetsuena. Sasoi aretarako edertia naikoa ona da: arku lez perra edo erradura-irudiduna artu dabe Siria'tik, zarrenak Griego-Cuenca'n dagoan eleizea, Palentzia'ko San Juan de Baños, onek iru erri-leku

Aldi aretako beste zaletasun aundi bat Bibliak "miniatura"kaz apaintzea zan.



daukaz perradun arkuak alboetan dirala eta aurrean iru toki bardiñak. Biblietan miniaturak egiten be zaleak dira eta bitxiak be bai.

Galia'n: Klodobeoren aldian frankoak geratu ziran nagusi eta kanpora joan bear izan eben bandaloak eta bisigodoak. VIII gizaldian agertzen da emen karolinjioen edertia, Eleizea erromatarrakandik ekarria. Lengo etxe ederren ondakiñak artzen dabez. Ikusi Poitiers'ko bateo'lekua eta kripta batzuk, illobiak, apaingarriak.

Britania Aundian ez zan erreñu aundirik sortu, konderriak baiño. An inguruan ziran Keltak apur bat erromartatu ziran eta kurutzeak apaindu ebezan, miniaturak ugari dagoz, bitxiak be bai.

Orra or lau gizaldi, mundu barri baten asiera diranak eta Eleizearen zeregin aundia ta ikaragarria.

Olazar'tar Martin'ek

EUSKAL ETXEAK

Idaz-lan kopuru luze bat idatzi nai neuke Euskaldunak Ameriketara egin daben lan aundia gogoratzeko. Zeregin au luzea dana ba-dakit, baiña eroapenez egin leikena da.

Ba-dakit Kolon'en denporetatik asita gaur arte luzatu leikena, baiña nik alderantziz egin gura neuke: Gaurko Euskal-Etxeetatik asi eta Kolon'en denporetara eldu.

Egin dagidan ba, lenengo ekiñaldia gaurko Euskal-Etxeak gogoratu.

Asieran erbesteratuak

Amaseigarren gizaldian eldu ziran Ameriketara lenengo euskaldun erbesteratuak: 1485n. urtean eldu ziran ara juditz edo judatar erbesteratuak eta arrezkero sarritan jaso dan gauzea da gure artean erbesteratzea, batez erlejiño ta politikako zioakaitik.

Juditzen urrengoak Naparroa'tik erbesteratutako sorgiñak izan ziran, gero protestanteak, batez be Naparroa'tik erbesteratu ebezhan hugonoteak. Oneik Fernando Katolikuak ara bialdu eban Alba'ko Dukeak erbesteratu ebazan.

Beste asko Inkisiziñoak erbesteratuta joan ziran ara eta XVIII gizaldi inguruan. Eritxi ezbaridiñetakoak izan ziran erbesteratuak, esaterako enziklopedistak eta Ameriketako Iraultzaren lagunak. Or ikusten da euskaldunak egin eban lana olako kultura bat zabaltzen.

Gizaldi-beratan izan ziran erbesteratuak josulagunak. 1767'ko jorraillean.

Buru-argi edo ilustraziñoaren aldekoak ziran euskaldunak lan aundi bat egin eben Egoamerikaren askatasuna lortzeko bidean. Esaterako, Artola'tar Mikel eritxonak VII Fernando'ren aurka urten eban ara joan bear izan eban 1812n. urteko Laterri-Gegea onartu ez ebalako, beste 24 aldun aske-zalekaz batera.

Irakurgarria da Mina gerrilleru euskaldunaren bizitza: 1814n. urtean, bere osaba Espoz'egaz batera Bilbao'ra urreratu zan eta emendik Frantzia'ra egin eban iges eta isillean barriro Bilbao'ra etorri zan eta egun gitxi barru London'era bialdu eben eta emendik Mexiko'ra joan zan eta an Lizeaga euskaldunagaz bat eginda, gerrilleru jarraitu eban baiña katigu artu eta il egin eben.

Aldi aretan eldu zan ara Abinareta ta Ibargoien'dar Eukene, Pio Baroja'ren aurretikoa eta idazle onek elebarri bitan aitatzen dauana. Au Kuba'tik Berakruz'tera joan zan.

Txile'ra eldu zan aldi beratan Bergara'ko Seminario ospetsuan matematikak emoten ebazan Gorbea'tar Ander.

Liberal erbesteratuak ez ziran asko-asko be izan. Geienak Frantzia'tik eta Inglateratik joanak.

Ainbat izan ziran, baiña IparAmerika'ren aurka Egoamerika'k egin eban gudan erbesteratuak.

Aitatu dagigun Iturbide ta Aranburu'tar Agustin: euskaldun-euskalduna, berak Puebla'ko Gotzaiñari eskutitz baten diñotsan lez. Au izan zan lenengo agintaria Mexiko Estatuan eta Agustin I izenagaz enperadore be izan zan urte batzutan, baiña Italia'ra erbesteratu eben eta arrapatu ondoren su-izkillatu. Onen alabak lagundu eutsen karlista erbesteratuai.

Euskal-Etxeenm Alkartea

Diaspoaran bizi ziran euskaldunak laster izan ebezan euskaletxeak eta euskaletxeen alkartek.

Arjentina'n 1877n. urtean Laurak bat sortu zan eta gero ortik sortu zan Gure Etxea eta abertzalean Euskaltzaleak taldea sortu eben 1945n. urtean. Iparraldeko euskaldunak eta naparrak be euren etxeak sortu ebezan. Guztiz XIX gizaldian iru talde egozan eta Zubero'tar batek, Martin Errekaborde'k ango Euskal-Etxea sortu eban. Benezuela'n XVIII gizaldian sortu zan Gipuzkoaren Alkarte bat eta 1940n. urtean alkar laguntzarako beste bat eta 1942n. urtean Eusko Etxea. Uruguai'n 1876n. urtean Laurak bat. Txile'n Santiago'ko Euskal Bazkuna sortu zan eta gero Brasil'en eta Kolonia'an Salvador eta Guatemala'n, Santo Domingo'n eta Laterri Batuetan.

Gaur Euskal Etxe guzti oneik alkartuta dagoz.

Olazar'tar Martin'ek



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

BIZKAIKO EUSKERA ZUZENTZEN

GUZTIA/DANA

Erderazko “todo” esateko, itz bi daukaz euskereak: “dana” ta “guztia”. Latiñak be bi eukazan: “omnis” eta “totus”. Nik euskerazko “guztia”ri latiñezko “omnis”en antza aurkitzen dausat, eta euskerazko “dana”ri latiñezko “totus”en antza.

Zenbatu ezin dan gauzea denean, “dana” erabilliko dogu: “ura dana edan dau” edo “esnea dana artu dau” edo “ogia dana jan dau”.

Zenbakiak erabilteko aukerea dagoanean edo “gai konmensurableak” diranean, orduan “guztia” erabilli: Ez: “iru ogi egon dira eta danak jan dauz”. Bai: “iru ogi egon dira eta guztiak jan dauz”. Bai: “ogei gizon jausi dira itxasora eta guztiak (ez danak) ito dira”.

Arau onek ba-dau beronen oiñarri: “Dana” ez da besterik “dan a” baiño. “ogia dan a jan dot” edo “dana jan dot”. Ez: “bost ogi egon dira or eta danak jan dodaz”. Esatekotan “Bost ogi egin dira or eta (egon) diranank jan dodaz”.

Ikusten da orain “dana” eta “totus” antzekoak dirala? eta “omnes” eta “guztiak” antzekoak dirala?

LENGUSIN JOSEBE ALA...

Esaera au sarritan entzuten dogu Bizkai Irratian eta ortik errira be sartu da. Berandu ete natorren nago. Baiña ez noa izten esan barik.

Senideen izenak ipiñi aurretik ipinten dabe senide orokorra eta alderantziz dala uste dot errian. Adibide bategaz obeto ulertuko da: “Zorionak emoten dautzuz zure lengusin Anek”. Askoz obeto joten dau nire balarrietan “Zorionak emoten dautzuz Ane zure lengusiñak”. Eta olako esaldi asko entzuten doguz Bizkai-Irratian.

Baiña onek beste gauza bat, antzekoa, dakarsku burura: Zelan esan bear dogu lekaide edo fraille bat

danean: “Aita Joakin” ala “Joakin aita”? Agertu dogun eritxiari jarraituz, emen be bardin izan bear leuke: “Joakin aita” edo “Santi Aita”, ez “Aita Santi”.

Eta ain maite dogun Bizkai Irratia aitatu dogun ezker, beste esalditxu bat aitatu daigun, edo, obeto esateko, beste aditz bat: Zer da euskeraz “zoriondu”? Nire ustez, “zoriontsu biurtu”, baiña ez “zorionak emon”. Laburtzearen erabilten dogu “zoriondu” itza orretarako, baiña apur bat kosta arren be, “zorionak emon” esan bear geunke. Onelan: “Josebe alaba ona da eta beronen ama zarra zoriondu egiten dau zartzaroan”. Baiña ez: “Josebe alaba ona da eta aitzu barik urtero zoriontzen dau ama Bizkai Irratiaren bidez”. Obeto “zorionak emoten dautsoz amari...” Beste leku baten azalduko dogu “zorionak” ala “zoriona” esan bear litzaken.

BALDINTZA ALA ITAUNA?

Gaztelereak dauzan illuntasunak errez-errez sartzen jakuz euskerara.

Ona emen bat: “Dime si quieres”. “Si” ori izan leiteke galdera: “Esaidazu nai dozun al ez”, edo “esaidazu zeuk nai ba’dozu”. Erderaz esaldi bietan erabilten da “si”, baiña ez euskeraz. Galdera danean azkeneko -n erabilten da, eta ba’ baldintza danean: “Esaidazu gura dozun ala ez”, “esaidazu zeuk gura ba’dozu, eta gura ez ba’dozu ez esan”.

Beti ez da argi-argi agertuko itauna ala baldintza dan, baiña geienetan bai. Ez esan ba iñoz be olakorik: “Andoni gaisorik ba’dago jakin gura dot”. Emen esan “dagoan”. Bai ostera: “Gaisorik ez ba’dago, datorrela gaur”.

Ez daiguzan galdu euskerearen argitasunak, aberastasanak eta egokitasunak.

OLAZAR’tar Martin’ek

TOKI BAT DAGO SALGAI / SE VENDE UN LOCAL

NON? TOLOSA’N. ORIA KALEA 5. ZEZEN-PLAZA’REN ONDOAN.

NEURRIA: 158 m²

JAKINGARRIAK ETA SALKETA: 943 65 13 33

BBK

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²